

PROIEKTUA IDAZTEA – Oinarrizko maila

Checklist hornitzaileentzat: Ingurumen-irizpideak**1. ERANSKINA: BALDINTZAK**

BAI zutabeko laukia markatu gutxieneko nahitaezko espezifikazio guztiak eta hitzemandako baloragarriak betetzen direla berresteko. Nahitaezko irizpideak ez betetzeak edo haiek betetzea frogatzen duen abala ez aurkezteak automatikoki baztertzen du eskaintza kontuan hartzea esleipen-prozedurako hurrengo faseetan.

Espezifikazio baloragarrietan, espezifikazioa betetzea frogatzen duen abala ez aurkezteak hari lotutako puntuazioa, eskaintza onuragarriena identifikatzeko balio duena, ezeztatuko du.

ENPRESAREN IZENA:			
GAITASUN TEKNIKO ETA PROFESIONALA	BAI	ABAL MOTA	ESKAINTZAREN ORRIA
Kudeaketa-sistemaren ziurtagiria ISO 14001 arauaren edo baliokide baten edo ISO 14006 arauaren edo baliokide baten arabera edo taldean eraikuntza jasagarriaren arloko aditu bat sartzea gutxienez	<input type="checkbox"/>	Enpresa kudeatzeko sistemaren ziurtagiria edo prozedurak eta formatuak edo teknikariaren curriculum eta homologazioen kopia	

DERRIGORREZKO IRIZPIDEAK	BAI	ABAL MOTA	ESKAINZAREN ORRIA
Hondakinak kudeatzeko azterlana sortutako eraikuntza eta eraispen hondakinen helburu batekin eta gutxienez % 80ko balorizazioarekin	<input type="checkbox"/>	1	
Obra gauzatzeko ingurumen-kudeaketaren azterlana	<input type="checkbox"/>	1	
IRIZPIDE BALORAGARRIAK	BAI	ABAL-MOTA/	MEMORIAREN ORRIALDEA
1 AUKERA			
Urbanizatzeko proiektuen garapen jasangarrirako gida aplikatzean ateratako agiria, emaitzen fitxa, lortutako puntuazioa eta aplikatu ez diren edo aplikagarri ez diren neurrien justifikazioa.	<input type="checkbox"/>		
2 AUKERA			
MATERIALAK: Materialak in situ aprobeztatzea eta kanpoko materialik ez sartzea.	<input type="checkbox"/>	2	
URA: Urak berrerabiltzeko proposamenak	<input type="checkbox"/>	3	
HONDAKINAK: Ekonomia zirkularreko politikak eta neurriak.	<input type="checkbox"/>	4	
EKOSISTEMAK: Berdeguneak babestu eta maximizatzeko irtenbideak eta ureztatzeko sistema efizienteak sartzea.	<input type="checkbox"/>	5,6	

JARRAIBIDEAK

“Abal mota” zutabearen ingurumen-ziurtagiriak, ekoetiketak edo espezifikazio edo irizpide baloragarri bakoitza betetzen dela bermatzen duten agiriak edo informazioa jaso dezaketenean agiriak jaso dira, baina bestelako egiaztagiri baliokideak onartuko dira, ezarritako irizpideak betetzen direla argi frogatzen bada.

Zenbakiak dokumentazio honi dagozkio:

1. Enpresaren konpromisoaren aitortzea
2. Proiektuan materialak in situ aprobetxatzeko ezarriko diren neurrien azalpena eta in situ berrerabilitakoaren azken ehunekoaren zenbatespena.
3. Urtean birziklatutakoaren prezipitazioaren eta bolumenaren zenbatespena.
4. Proiektuan aplikatuko diren ekonomia zirkularreko politiken eta neurrien zerrenda eta inpaktuaren zenbatespena, banakoarena eta globalarena.
5. Proiektuan biodibertsitatea eta ekosistemak babesteko sartuko dituzten proposamenen zerrenda.
6. Ureztatze sistemaren eta prestazioen azalpena

Eskaintzaren orrialdea zutabearen abala eransten den lizitazio-dokumentuaren orrialdea edo eranskina adieraziko da.